



## **PIRINIOETAKO LAN ELKARTEA**

### **HIDROGENO BERRIZTAGARRIA** **SUSTATZEKO KONPROMISOA**

Duela gutxiko gertakari geopolitikoak ikusita, garbi dago karbono-neutraltasunaren prozesua bizkortzea eta energia-baliabide ez-berriztagarri kutsatzaileekiko mendekotasuna murriztea lehentasunezko beharrak direla.

Hidrogenoaren arloko Europako Estrategian, energia-bektore hori energia berriztagarrietan oinarrituta ekoizteko potentziala aztertzen da. Hori Europar Batasuneko lurraldean energia-trantsizioan eta deskarbonizazioan laguntzeko funtsezko urrats bat izango litzateke.

Hidrogeno berriztagarriak energia-baliabide bideragarri gisa duen potentzialaz eta kideen espezializazio adimenduneko estrategien artean sinergia garrantzitsuak sortzeko aukeraz jabetuta, PLEk iraunkortasunaren bidetik egin nahi du aurrera. Bere lurraldeek zero berotegi-efektuko gas-isuriko ekonomia bateranzko trantsizioa egin nahi dute, ekintza koordinatu baten bidez.

Klima Aldaketaren Pirinioetako Estrategiak, PLEk Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokiaren (KAPB) bultzadaz onetsiak, klima-aldaketa honen eraginak aztertu eta bere lurraldean horretara egokitzeke neurriak proposatzen ditu.

PLEko osoko bilkurak, lehendakaritza Euskal Autonomia Erkidegoaren eskuetan zegoela, 2022ko azaroaren 30ean onartutako adierazpenari jarraituz, Pirinioetako Lan Elkartek hidrogeno berriztagarria ekoitzi, garraiatu, biltegitatu eta erabiltzea sustatzeko konpromiso sendoa lortu nahi du, honako helburu hauekin:

- Hidrogenoaren ekonomia hedatzeko mugaz gaindiko eremu bat sortzea.
- Europa mailan PLEren posizionamendua indartzea, batez ere sortzen ari diren Europako azpiegitura-proiektu handien esparruan, Pirinioetan abiatzen ari diren proiektuak balioesteko eta kontuan hartuko direla ziurtatzeko.
- Estatuaren artean Pirinioez gaindiko interkonexio-azpiegiturak garatzeko egiten ari diren negoziazioak babestea. Azpiegitura horiek energia-hornikuntzako iturriak dibertsifikatzen lagunduko dute, baita energia-iturri



berriztagarriak erabiliz (hidrogeno berdea eta biometanoa, esaterako) deskarbonizazioa sustatzen ere. Era berean, eskualdeek eta autonomia-erkidegoek erabakitzekeo prozesuan parte hartu ahal izatea eskatzen du.

- Hainbat lurralde-eskalatako estrategietan ezarritako deskarbonizazio-helburuak betetzea; batez ere, hidrogenoa garraiatzeko eta biltegitartzeko azpiegiturak abian jartzeko Pirinioez gaindiko lankidetzak sustatuz.

Gainera, PLEko lurralde kideek eragile publiko eta pribatu interesdunak konpromiso horretara atxikitzea sustatuko dute, alderdi interesdun guztiak bildu daitezkeen Pirinioetan hidrogeno-ekosistema bat sortzeko. Horrela, askotariko sektoreetan integratutako hidrogeno garbiko balio-kateen garapenak sare-lanaren eta lankidetzak-proiektuen bidez izango du jarraipena.

PLEk mugaz gaindiko proiektuetan duen esperientzia ekimen honen eskura jartzen du. Mugaz gaindiko lankidetzan espezializatutako talde tekniko bat du; helburuetatik proiektu espezifikoei igarotzeko eta finantzaketa-iturri osagarri egokiak aztertzekeo beharrezko ezagutzak eta finantza-baliabideak dituen talde bat, hain zuzen. Lan hori argitu eta erraztekeo, hidrogeno berriztagarriaren arloko lantalde bat eratu da eta lurralde kide guztietako sektore publiko eta pribatuetako hainbat adituk parte hartzen dute.

PLE ziur dago berotegi-efektuko gasik gabeko ekonomia berriak trantsizio azkarra eta justua behar duela, baliabideetan oso efizienteak diren energia berriztagarrietan oinarritutako sistema energetiko baterantzko pausoak ematekeo. Sistema horrek herritar guztien eta, bereziki, Pirinioetako herritarren inplikazioa bermatu beharko du, jasangarritasuna, osasunaren babesa, pobrezia energetikoaren murrizketa, horniduraren segurtasuna eta eremu geografiko horretan energiaren eskuragarritasuna bermatuz, baita ikuspuntu finantzario batetik ere.

Horregatik guztiatik, Pirinioetako Lan Elkarteko kide diren lurraldeek, beren eskumenetan, esperientzian eta etorkizunean mugaz gaindiko lankidetzak-proiektuak eraikitzekeo gaitasunean oinarrituta, ahalegin horretan konpromiso irmoa dutela berresten dute.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 27a